

Kolore guztietako basoak



Iñaki Barcena Hinojal
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Zakilixut kritiko-zinikoak esana: “Eguberrietako hauek, bonbila fruitu... eta argiz beteta!”. Antton Olariagaren pertsonaiak duela 40 urtetik ontzen ditu iradokizun ekologikoak eta arlo asko ditu jorrazteko Euskal Herri txikian. Gure oihan eta basoetako egoera, horietako bat dugu, jakina.

“**Kolore guztietako basoak**”. Horrela dio Bizkaiko 50 talde eta gizarte eragilek (ekologistek, zientzialariek, artista eta baserritarrek, kooperatibek, basogintzako enpresek eta sindikatuek...) Bizkaiko Aldundiari eraman dioten errebindikazioak. Nekazaritza Sailak emandako datu ofizialen azterketa sakon eta diagnosi argia eginez gero, proposamen batzuk egin dizkiote Bizkaiko Gobernuari. Monokultibotik naturaren hurbileko baso kudeaketara pasatzea defendatzen dute, baso publikoetan batez ere, baina jabe pribatuentzako laguntzak ere eskatuz. Egun, Bizkaia eta Gipuzkoako basoek ez dute arabarren edo nafarren kolorerik. Iparraldeko oihanena ere ez. Kolore eta jabegoa.

1857an, Adan de Yarzarrek *Pinus Radiata* ekarri zuten Kaliforniatik Ispasterrera eta hortik aurrera bere landaketak bultzatu zituzten. Gaur egun Bizkaiko eremuan 70.000 hektarea ditugu. Pinu eta eukaliptoen landaketak lurraldearen %75a dira eta baso autoktonoak %25a (pagoak,

haritzak, gaztainondoak...). Kurioski, proportzioa berdina dugu lur publiko zein lur pribatuetan. Bizkaiko ekologistek kopuru hauek aldatu nahi dituzte. Lur publikoetan (%27 soilik) bertako basoa berreskuratuz bertako baso azalerak %41 lortu arte eta landaketa aloktonoa %59ra jaitsi.

Basoak ala porlana? Nola erantzungo diote Bizkaiko agintariek ekimen “erreformista” honi? Ikusteko dago, baina Unai Rementeriak Gernikako Batzarretan esan zuena ezagututa, euren planak zementuari loturik doaz. Koiuntura ekonomiko “gozoa” dagoenez, diru-biltze gehiagorekin Arrontegi zubiaren “anaia bikia” eta Hegoaldeko saihebsidea (*Supersur*) luzatzea AP-68rekin lotuz, aurreikusten ditu diputatu nagusiak.

Eta burura etortzen zaidan galdera da: non jarriko ditu ekologismoak bere atzamarra eta indarrak? Baso politika berria eraikitze aldean ala porlanezko inbasioari ezetza ematen? Nire uste apalean, biak ala biak dira ezinbestekoak. Osagarriak dira, ez kontrakoak. George Monbiot kazetari ekologista britainiarrek Gales eta Eskoziako basoen defentsan idatzitako liburuan dioenez (*Feral: Rewilding the Land, The Sea and the Human*, 2016; gaztelaniaz *Salvaje, Capitan Swing*, 2017) mundu osoan dugu gatazka hori, lurra dutenen, erabiltzen dutenen eta Lurra zaindu nahi dutenen artekoa. ■

Victor Lainezen heriotzaz



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Komunikabide nagusiek ofizial bihurtu duten bertsioaren arabera, okupa antisistema baten espainiar banderako tirantedun tipo bat bortizki erailten du, tiranteak ez beste arrazoirik medio. Bertsio bakar hau sensazionalismo osoz hedatuz, kasu hau mediatizatzeak abantaila batzuk ditu:

Ekintzaile eta militante antikapitalistak bere tokian jartzen ditu: kriminal biolento arrisku-tsuak. Okupazioa estigmatizatzen da (*sakratum jabegum pribatum, amen*). Antisistema hitza tabu bihurtzen du: oraingo antisistema da pasa den mendeko komunista.

Tirante hori-gorriak erdigunean jarrita, Espainiarekiko gorrotoa da mintzagai. Gorrotoak

mugitutako basati hauek dira, Altsasuko gazteak bezala, terrorista berriak.

Mutur eskuineko fatxa bat biktima errugabedun bezala irudikatzen da. Estatuaren funtzionario eta ordezkari hainbatek –gehiegik– espainiar nazionalismo ultraeskuindarraren gorakada eta neonazien inpunitatea irribarretsu begiratzen dute. Gainera, kasu honek eta 4F-ko muntaia polizialak batak bestea indartzen du. Batak Rodrigo Lanzaren izaera kriminala ezartzen du eta besteak berretsi.

Berriz ere gezurrak muturrean, berriz ere amorrua, injustizia, beldurra, kalte-beratasun biluzia, inpotentzia eta etorkizun iluna, antsietatea. Nori tokatuko zaio loteria hurrengoan? ■